

## KONTUZ-KONTUZ UREZTATZEN

### Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu

Ura alferrik ez gastatzeko orduan daukagun erantzukizunaz jabetzea.

### Iraupena

Jarduera hau saio bakar batean egiteko dago pentsatuta.

### Beharko dugun materiala

Paper orlegia.

Tipula-paper urdina.

### Hezitzailearentzako oharrak

Jarduera honen helburua natura errespetatzeak duen garrantzia azpimarratzea da; bereziki, ura alferrik ez gastatzearen garrantzia, horrek batzuetan ahalegina egitea eskatzen digun arren (jarduera honen kasuan, landareak ureztatzeke altxatu behar izateak sinbolizatzen du ahalegin hori).

Jarduera egiten hasi baino lehen, tipula-paper urdinaren pieza karratuak moztu, ikasle bakoitzari puska bat emateko eta horrekin ur tanta bat egiteko.

### 1. fasea: Goazen landareak ureztatzerara

Jarri zirkuluaren erdian orlegiz margotutako bi hosto. Ureztatu behar ditugun landareak sinbolizatuko dituzte. Esan landare bakoitzak gutxienez hiru ur tanta behar dituela bizirik irauteko eta ez lehertzeko. Landare guztiak ondo ureztatuta egotea izango da gure helburua. Ikasle bakoitzari tipula-paper puska bat eman, eta horrekin bolatxo bat egiteko eskatu. Bolatxo horietako bakoitzak ur tanta bat sinbolizatuko du. Eser daitezela biribilean, landareetatik hiru bat metrora gelditzeko moduan. Esan dauden lekutik, mugitu gabe, bolatxoak (ur tantak) kontuz-kontuz landareetara jaurti behar dituztela.

«Tanta» guztiak erabili dituztenean, gertatutakoaren inguruan gogoeta egin, besteak beste galdera hauek eginez:

- Zenbat ur tanta erori dira landare bakoitzean? Jaso al dituzte landareek bizirik irauteko behar dituzten hiru tantak?
- Zenbat ur tanta galdu dira alferrik, landareetatik kanpora erori direlako?
- Bete al dugu helburua?
- Ondo erabili al dugu geneukan ura?

### 2. fasea: Kontuz ureztatu behar da

Esan ikasleei bakoitzak bolatxo bat hartzeko eta berriro bere lekuan esertzeko. Azaldu oraingo honetan beste modu batera ureztatuko dituztela landareak: altxatu egingo dira, landareengana hurbilduko dira, eta hosto batean gainean utziko dute ur tanta. Begiratu beharko dugu landare guztiak behar beste ur tanta dituztela, eta banaketa berdintsua edo proportzionatua dela.

Gertatutakoaz hausnartu, besteak beste galdera hauek eginez:

- Zenbat landarek daukate gutxienez hiru tanta? Landareen batek hiru tanta baino gehiago ere ba al ditu?
- Zenbat ur tanta gastatu ditugu alferrik oraingo honetan?
- Bete al dugu helburua?
- Oraingo honetan aurrekoan baino ahalegin handiagoa egin behar izan al dugu? Zergatik?
- Zer ikasi dugu jarduera honi esker?



Benetako superheroiek ez dute sekula ura alferrik gastatzen, eta zaindu egiten dituzte izaki bizidunak.

